



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN
TEKNIKAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

TÉCNICAS DE EXPRESIÓN GRÁFICO-
PLÁSTICAS

Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak

Técnicas de Expresión Gráfico-Plásticas

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek bi atal ditu: A eta B. Atal bakoitzean, proposatzen diren bi ariketetako bat soilik egin behar duzu.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN
TEKNIKAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

TÉCNICAS DE EXPRESIÓN GRÁFICO-
PLÁSTICAS

A atala (probaren % 20 balioa du)

1. ariketa. Jarraian, bi irudi erakusten dira: Isabel Baquedanoren *titulurik gabeko* lana, eta Joan Mitchellen *titulurik gabeko* lana.

1. Konpara itzazu bi irudiak, lanen aspektu formalak eta teknikoak aztertuz eta bi obra horiek sortzeko prozesuetan erabilitako prozedurak eta materialak alderatuz: trazuak, ñabardurak, argi-ilunak, erliebeak, kolorea, konposizioa, formatua, matrizeak. Alderaketa egiteko, ezinbestekoa da alor grafiko-plastikoko nomenklatura eta terminologia erabiltzea, baliabideak, prozedurak eta materialak deskribatzeko. (Aurreikusitako denbora: 20 min)



Titulurik gabekoa (1971). Isabel Baquedano. Liho gaineko olioa. 100 x 100 cm



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN
TEKNIKAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

TÉCNICAS DE EXPRESIÓN GRÁFICO-
PLÁSTICAS



Titulurik gabekoa (1989). Joan Mitchell. Paperaren gaineko pastela. 58,2 x 39 cm



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN
TEKNIKAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

TÉCNICAS DE EXPRESIÓN GRÁFICO-
PLÁSTICAS

2. ariketa. Garatu gai hau:

Erliebe hondoratuan estanpatzeko prozedurak eta prozedura planografikoak.

Diskurtsoari hasiera eman diezaioketen zenbait irudi erakusten dira. Azalpenean haiei erreferentzia egitea baloratuko da. Eredu gisa proposatzen den gidoi honi jarraitu behar zaio:

Gidoia:

1. Gaia garatu, obren alderdi formalak, teknikoak eta testuingurukoak aztertuz, eta obra horiek gauzatzeko erabilitako prozedurak eta materialak alderatuz: trazuak, ñabardurak, argi-ilunak, erliebeak, kolorea, konposizioa, formatuak, gainezartzeak, euskarriak, matrizeak.
2. Erabili eremu grafikoko nomenklatura eta terminologia baliabideak, prozedurak eta materialak deskribatzeko. (Aurreikusitako denbora: 20 min)



The mother's (1921). Käthe Kollwitz. Xilografía. 39 x 48 cm



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2024ko EZOHIOA

ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOAREN
TEKNIKAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

TÉCNICAS DE EXPRESIÓN GRÁFICO-
PLÁSTICAS



Titulu gabekoa (2012). José Luis Zumeta. Serigrafía. 112 x 76 cm.



B atala (probaren % 80ko balio du)

1. ariketa. Ariketa honek bi atal ditu:

1. Irudi berri bat sortzeko helburuarekin, egin itzazu gutxi gorabehera 7 x 7 cm-ko hiru zirriborro koloretan edo gris-eskalan, Isabel Baquedanoren titulurik gabeko obratik edo Joan Mitchellen titulurik gabeko obratik abiatuta. Proposamena egiteko, hiru teknika desberdin erabili behar dira gutxienez (edo teknika bera hiru modu desberdinetan aplikatuta). Teknika hezeak zein lehorrak izan daitezke. Zer teknika erabili ikasle bakoitzaren esku geratzen da. Horrela, irudi bakoitzak propietate desberdinak izan beharko ditu erabilitako teknikari, koloreari, konposizioari, testurari eta ikonizitate-mailari dagokienez.

(Aurreikusitako denbora: 25 min)

2. Isabel Baquedanoren titulurik gabeko obratik edo Joan Mitchellen titulurik gabeko obratik abiatuta zirriborroak egin ondoren, planteatutako hiru zirriborroetako bat garatu 20 x 20 cm-ko formatuan. Horretarako, erabili zure ustez egokiena den teknika. Originaltasuna eta sormena baloratuko dira, baita teknika nola erabili den ere emaitza izango den irudiaren propietateei dagokienez.

(Aurreikusitako denbora: 45 min)

2. ariketa. Egin proiektu grafiko bat, publizitate-kanpaina baten bidez ingurumena eta jasangarritasuna hobetzeko ekintza bat proposatzeko. Eredu gisa proposatzen den gidoi honi jarraitu behar zaio:

Gidoia.

1. Idatzi eta identifikatu hautatutako proiektuaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Horretarako, idatzi gako-hitzak eta hitz horietatik ideia-elkarketa bidez eratorritakoak, zure proiektua definitzen duten 3 eta 6 kontzeptu bitartean osatu arte, eta azaldu proiektua.

2. Deskribatu zer prozedura grafikorekin eta zer euskarritan gauzatuko zenukeen proiektua. Faseak laburbildu eta egin bi zirriborro A4an.

Aurreikusitako denbora: 25 min.

3. Garatu zirriborroetako bat A3 formatuko kartel didaktiko bat sortuz, eta, horretarako, erabili prozedura grafiko-plastikoak (txantiloiak esteanpatzea, monotipia, txantiloiz pintatzea, collage-a, teknika hezeak eta lehorrak: arkatza, boligrafoa, errotuladoreak, tinta, akuarelak, etab.).

Aurreikusitako denbora: 45 min.



I

Adierazpen Grafiko-plastikoaren Teknikak

Técnicas de Expresión Gráfico-Plásticas

A atala. 1. ariketa

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK (proba osoaren % 20ko balio du)

Testuak bi obren alderdi hauek azaldu eta alderatu behar ditu (Irudietako bat bakarrik azaltzen badu, atal honetako puntuazioaren erdia lortuko du gehienez, puntu bat) :

Irudien ikonizitate-maila (figuratiboa edo abstraktua): 0,25 puntu

Kolorearen (edo gris-eskalaren) deskribapena (zer kolore mota diren nagusi eta zer saturazio-maila duten): 0,5 puntu

Jarraitutako prozeduraren deskribapena (pintzelkadak eta trazuak): 0,25 puntu

Euskarria eta teknika adieraztea: 0,25 puntu

Konposizioa (simetrikoa edo asimetrikoa): 0,25 puntu

Formatua (bertikala, horizontala, karratua, etab.): 0,25 puntu

Nomenklatura (hizkuntzaren erabilera [hizkuntza teknikoa barne]): 0,25 puntu



A atala. 2. ariketa

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK (proba osoaren % 20ko balio du)

Testuak bi obren alderdi hauek azaldu eta alderatu behar ditu (Irudietako bat bakarrik azaltzen badu, atal honetako puntuazioaren erdia lortuko du gehienez, puntu bat):

Zein da irudien testuinguruaren edo mugimendu artistikoaren maila? (ikuspen onirikoa, espresionismo, pop art-a): 0,25 puntu

Jarraitutako prozeduraren deskribapena (akuaforte, linoleoa, xilografia, serigrafia): 0,50 puntu

Euskarria eta teknika adieraztea: 0,25 puntu

Kolorearen (edo gris-eskalaren) deskribapena (zer kolore mota diren nagusi eta zer saturazio-maila duten): 0,25 puntu

Konposizioa (simetrikoa edo asimetrikoa) eta formatua (diptikoa den, bertikala, horizontala, karratua, zuriuneak, etab.): 0,25 puntu

Nomenklatura (hizkuntzaren erabilera [hizkuntza teknikoa barne]): 0,50 puntu



B atala. 1. ariketa

B atala. B1.1 ariketa (notaren %30 balio du)

1/2/3 irudiak (B1)	Eskakizunari erantzuten dio: bai / ez *		
Egindako irudiek propietate desberdinak dituzte alderdi hauei dagokionez?:	Gutxi (0 puntu)	Erdizka (0,15 puntu)	Asko (0,3 puntu)
Erabilitako teknika (edo nola aplikatu den)			
Kolorea			
Konposizioa			
Testura			
Ikonizitate-maila			
Guztira (1,5 punturekiko)			

1/2/3 irudiak (B1)	Eskakizunari erantzuten dio: bai / ez *		
Zein neurritan garatu dira irudien aspektu hauek?:	Gutxi (0 puntu)	Erdizka (0,15 puntu)	Asko (0,3 puntu)
Erabilitako teknika (edo nola aplikatu den)			
Kolorea			
Konposizioa			
Testura			
Ikonizitate-maila			
Guztira (1,5 punturekiko)			

* Irudiak planteamenduari erantzuten ez badio, epaimahaiak irudi hori ez baloratzea edo 0,5 punturekiko baloratzea erabaki dezake.



B atala. B1.2 irudia (notaren %50 balio du)

B1.2 irudia hiru alderdiren arabera baloratuko da: garapen teknikoa (aukeratutako prozedura nola erabili den), garapen formala (jatorrizko obrarekin dituen harreman formalak) eta garapen kontzeptuala (idea, benetakoa eta originala al da?).

Zer neurritan sakondu da garapen teknikoan, formalean eta/edo kontzeptualean:

1. Apenas sakondu den alderdi tekniko, formal eta/edo kontzeptualetan. (0 puntu)
2. Alderdi gutxitan sakondu da (_____ lotutakoekin, adibidez), baina besteak ez dira zaindu. (0 - 1,5 puntu)
3. Alderdi batzuetan sakondu da, baina alderdi hauetan _____ sakontzea komeniko litzateke. (1,5 - 3,5 puntu)
4. Lanaren alderdi guztietan sakondu da orokorrean. (3,5 - 5 puntu)

Adierazi aztertutako hiru alderdiei buruzko hobekuntza-proposamenak, halakorik balego:

Obra sentikorra eta hunkigarria da, nahiz eta alderdi tekniko, formal eta/edo kontzeptual guztiak ez dauden erabilia. (_ puntu)



B atala. 2. ariketa

B atala. B2.1 ariketa (notaren %30 balio du)

1 Zirriborroa (B1)	Eskakizunari erantzuten dio: bai / ez *		
Deskribatutako alderdiak bat datoz irudiaren ezaugarriekin?	Gutxi (0 puntu)	Erdizka (0,1 puntu)	Asko (0,2 puntu)
Erabilitako teknika			
Kolorea			
Konposizioa			
Testura			
Maila didaktikoa edo komunikatiboa			
Guztira (1,5ekiko)			

2 Zirriborroa (B1)	Eskakizunari erantzuten dio: bai / ez *		
Deskribatutako alderdiak bat datoz irudiaren ezaugarriekin?	Gutxi (0 puntu)	Erdizka (0,1 puntu)	Asko (0,2 puntu)
Erabilitako teknika			
Kolorea			
Konposizioa			
Testura			
Maila didaktikoa edo komunikatiboa			
Guztira (1,5-ekiko)			

* Irudiak planteamenduari erantzuten ez badio, epaimahaiak irudi hori ez baloratzea edo 0,5 punturekiko baloretzea erabaki dezake.



B atala. B2.2 ariketa (proiektua) (notaren %50 balio du)

2.2 irudia hiru alderdiren arabera baloratuko da: garapen teknikoa (aukeratutako prozedura nola erabili den), garapen formala (proposatutako proiektuarekin dituen erlazio formalak) eta garapen kontzeptuala (ideia, benetakoa eta originala al da?).

Zer neurritan sakondu da garapen teknikoan, formalean eta/edo kontzeptualean?:

1. Apenas sakondu den alderdi tekniko, formal eta/edo kontzeptualetan. (0 puntu)
2. Alderdi gutxitan sakondu da (_____ lotutakoekin, adibidez), baina besteak ez dira zaindu. (0 - 1,5 puntu)
3. Alderdi batzuetan sakondu da, baina alderdi hauetan _____ sakontzea komeniko litzateke. (1,5 - 3,5 puntu)
4. Lanaren alderdi guztietan sakondu da orokorrean. (3,5 - 5 puntu)

Adierazi aztertutako hiru alderdiei buruzko hobekuntza-proposamenak, halakorik balego:

Obra sentikorra eta hunkigarria da, nahiz eta alderdi tekniko, formal eta/edo kontzeptual guztiak ez dauden erabilia. (_ puntu)